

Kanpantxu-ko  
Eskoletan  
aterpea



Gorgogana eta Agarre-ren  
arteko ur saneamendu  
sarea barrizatuta

Eztilotza eta Laubideren  
arteko landa bidearen  
konponketa

# AJANGIZ

01 • 2004



barriak

Información Municipal del Ayuntamiento de AJANGIZ • AJANGIZko Udal Informazioa

## BABES OFIZIALEKO 24 ETXEBIZITZA BARRI Datorren urtean hasiko dira lanak



**B**izkaiko Foru Aldundiko Bizkailur sozietate publikoak babes ofizialeko 24 etxebizitza eraikiko ditu gure herrian, eskaera horren inguruan Ajangizeko udalak jestioak egin eta gero.

Eraikuntza egiteko lurak udalarenak dira. Lurraldeak 7.500 m<sup>2</sup> ko azalera dabe. Eraikinak barriz, 2.800 m<sup>2</sup> beteko dabez gehien jota.

### 80 m<sup>2</sup>, garajea eta trastelekua

Etxebizitzarik gehienak 80 eta 85 m<sup>2</sup> bitartekoak izango dira. Garajea ere izango dabe, 30 m<sup>2</sup>koa gehien jota, eta trastelekua, beste 15 m<sup>2</sup>koa handiena.

### 1.695 euro metro karratuko

Etxebizitza honeen salmentarako prezioa ere erabakita dago. Gehien jota, etxebizitza bakoitzeko azalera erabilgarriko metro karratua 1.695 eurotan izango da. Honek esan gura dau, 80 m<sup>2</sup>ko etxebizitza estandarrek

135.600 balioko dituela. Prezio honeei balio erantsiari buruzko zerga gaineratu behar jake.

### Babestutako etxebizitzak

Babes ofizialeko etxebizitzako esleipendunak, etxebizitzaren jabeak barriro saldu gura izango baleu Ajangizeko udalak izango leuke erosteko lehentasun eskubidea 15 urtetan. Horrela gertatuko balitz, etxebizitza saldu zan prezio berean erosteko eskubidea izango leuke udalak. Iruzurra eta espekulazioa eragozteko neurria da hau.

### Baldintzak eta izena emotea

Etxebizitzotarako eskaera egin nahi dabenek bete behar dabezan baldintzak aztertzen dabil Ajangizeko udala. Baldintza orria argitara emon ondoren, izena emoteko epea zabalduko da. Prozedura osoaren garrantasuna ziurtatu nahi dau udalak era honetara.



## ALKATEAREN ESKUTITZA

Gazteak herritik alde egitea baino tristeagorik gauza gitxi egon leiteke herri batentzat. Gurea bezalako herri txiki batean gertatzen danean, garratzasun osoz azaltzen da arazoaren sakonera. Gazteriak alde egin behar izatea etxebizitzarik ez daukalako penagarria eta lotsagarria da. Horrexegaitik guztiz pozgarria izan dot Bizkaiko Foru Aldundiarekin hartuemonetan hastea babes ofizialeko 24 etxebizitza eraiki daginez herrian. 24 aukera izango direlako beste horrenbeste sendirentzat; 24 bizigarri gure seme alabak bertan gorde eta gure herri maitea indartzeko.

Albiste pozgarri honegaz zabaltzen dogu Udal Informaziorako aldizkari hau, udala zertan dabilen eta zer egiten duen heldu-arazteko ajangiztar guztiei. Aldizkari lehen ale honetan, Kanpantxuko eskolatan egiten gabilzen atontze lanak; ur saneamendu sarean egindakoak; edo ta Eztilotza eta Laubideren arteko bidean egindako konponketen barri emon gura deusuegu, besteak beste.

Eta aldizkaria zabaltzerakoan gabon sasoia heldu jakula eta, zorionik beroenak ere zeuengatatu gura neukez idatzi honen bidez. 2005 urte barri oparoa izan dagizueta, herrikide guztiok!

## TEILATU BARRIA HERRIKO TABERNAN

Herriko Tabernak badauka teilatu barria. Teilatzatzearekin estaliko dira itoginak eta ur sartzeak. Teilatu barria jartzeko lanak azaroaren 22an hasi ziren.

Gaur egun, Idoia Magunagoi-koetxea eta Karmelo Crespok zuzentzen dabe Herriko Taberna. Teilak ipintzeko eta teilatuaren konponketarako prestatu dan aurrekontua



29.949 euro izan da. Hau egiteko diru laguntza emon dabe Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Urremendi Landa Garapenerako Alkartek.

## UMEENTZAT JOLAS LEKUA KANPANTXU-KO PLAZAN

Umeek jolastu dagien leku aproposa erabarritu da Kanpantxuko plazan. Jolas lekurako txokotxoan lurra mugidu eta lur zoru egokia egin da umeentzat. Legarraren gainean aukerako zorua jarri da, 5 zentimetroko lodiera daukan material elastikoagaz eginda, umeen jolaserako aproposa.

Jolas tokian kulunka, txinbo bikoi-tza jarri da. Eta jolas-multzo bat, 1,80 metroko altuera daukan torretxoagaz, oholtza eta txirrista bategaz. Jolasteko multzo hau 10 urtera arteko umeentzat egokia da.

Tratamendu berezia emon jake egurrezko egiturei, kanpoan, estal-



pe barik, iraun dagien. Metalezko piezak, malgukiak esate baterako, tratamendu berezia daukie ugetu ez daitezen: metal toxikorik ez daukan pintura eskualdi bi emon jakez aplikazio elektrostatiakoaren bidez.

Jolas toki hau barritzeko 38.996 euro erabili izan dira.

## UR SANEAMENDUA KONPONDUTA GORGOGANA ETA AGARRE-REN ARTEAN

Aurreko irailean barrizatu zan Gorgogana eta Agarrerren arteko ur saneamendurako sarea. Sare zaharra egoera txarrean egoan eta ur asko galtzen zan horregaitik. Bidea sarri zulozten zan eta behin behineko konponketak zatika eta jarraian egin behar izaten ziren. Hori zala eta osorik eta behar bezela konpontzea erabaki zan eta horrela egin ere Gorgogana eta Agarre-ren artean. Kilometro erdiko luzeera izan dau konpondutako sareak, herriaren



erdigunetik hilerrira doan ur bideak. Azpiegitura honek zazpi etxebizitza, ureztaketarako bost sarbide eta suteen aurkako ur biltegia hornitzen ditu.

Hoditeri barria aurrekoa baino iraunkorragoa da. Loditasun gitxiko polietilenoaz eginda dago, 90 milimetroko diametroduna da (aurrekoa, 75 milimetrokoa zan). Hodiak zentimetroko 10 kiloko presioari eusten deuto.



# ATERPEA KANPANTXUKO ESKOLETAN

## Eraikuntzaren jatorrizko itxura berreskuratu nahi da

Kanpantxuko eskola zaharrek lehengo itxura izango dabe barriro ere neurri handi batean, aterpea berreskuratuko dabe eta. Orain direla 70 urte gitxi gora behera egin ebezan eskolak. Denbora pasatu ahala, batez ere, eskolak zarratu zirenetik, eraikuntza hondatzen joan da urterik urtera.

### 50 ikasletik gora

Aurreko mendeko 50garren eta 60garren hamarkadan goieneko unean izan ziren Kanpantxuko eskolak, 50 ikasle baino gehiago ere izan ebezan eta. Garai hartan ohikoa zanez, neska mutilak bananduta egozan eskolatan. Mutilen eskolako azkeneko maistra Alicia Intxausti ajangiztarra izan zan eta orduko kontuei buruz berba egin dogu bera-gaz aldizkari honetarako.

### Hormak eraitsi

Kanpantxuko eskoletako aterpean ekialdeko eta iparraldeko hormak bota egin dira; mendebaldeko horma barriz,



bertan itzi da frontoi txiki bat egiteko. Aterpeko zoru zaharra ere kendu egin dabe eta barria jartzen dabilz. Horrez gain, egurrezko sei arkupe jarriko dira. Zurezko zutabeak granitozko oinarriaren gainean ipiniko dira eta aterpea teilaz estaliko da, orri iragazgaitzaren gainean jarrita. Eskoletako teilatu-hodiak eta zorrotzenak kobrezkoak izango dira.

Lan guzti honeek egiteko 39.000 euro ibilliko dira.



## “Expedientea zabaldu eustien Euskera erabiltzeagatik Kanpantxun”

### ALICIA INTXAUSTI, Kanpantxun maistra

**Ia 40 urte irakasten jardun dau. Bilbon hasi zan klaseak emoten eta handik gitxira bere jaioterrira, Ajangizera, etorri zan, Kanpantxuko mutilen eskolan klaseak emoteko. Bere eskola itxi eben arte egon zan bertan. Emakume bizizale honek diktadura garaiko egun latzetan euskeraren irakaskuntzaren alde jokatu eban. Alicia Intxausti da eta Ajangizen bizi da.**

**G: Eskola irakasle jarduteaz aparte, euskeraz ere irakaslea zinen hori irakasterik ez egoan garai hareetan...**

**E:** Garai hareetan ez egoan ikastolarik eta euskeraz irakastea galazota egoan. Hala ere, euskeraz emoten ziren klaseak, ezkutuan, Bilboko etxebizitzetan. Ajangizeko Juliana Berrojalbizek sartu ninduan ezkutuko euskerazko eskola mundu horretan.

**G: Maistra moduan Bilbon hasi zinen klaseak emoten eta gero Ajangizera etorri zinen, ezta?**

**E:** Otxarkoagan hasi nintzen, 60garren hamarkadaren hasieran. Eta hamarkadaren erdira aldera Ajangizera etorri nintzen. Kanpantxuko Eskolen etxea ederra zan eta eskola bi eba-

zan: mutilena eta neskena. Ni, mutilen eskolako arduraduna nintzen eta Maria Jesus Zubizarreta gernikarra, neskena. Nesken eskola izan zan itxi eben azkena.

**G: Zelangoak ziren orduko eskolak eta eskolumeak?**

**E:** Adin guztietako neska-mutilak egozan bertan, 4 edo 5 urtetik hasita 12 urtera artekoak, talde desbardinetan bananduta. Txikitxoei irakurtzeko teknikak irakasten neutsien, eta egun berean, handienei, Hiruaren Araua edo Erro Karratua.

**G: Kanpantxun zinela eta euskerea zala, orduko Eskola Ikuskaritzarekin gorabeheraren bat izan zenduan, ezta?**

**E:** Bai, eta ia ez nintzen konturatu ere egin! Irakaskuntza orduan gaztelez bakarrik zan, legeak horrela behartuta. Hala ere, nik euskera erabiltzen neban noizbehinka azalpenen bat emoteko edo kanturen bat irakasteko eskola umei. Halako batean, ezustean iritsi zen Eskoletako Inspektorea eta horman idatziren bat euskeraz eskegita neukala ikusi eban. Une hartan ez jatan ezer gertatu, baina handik urte batzutara enteratu nintzen,



ezustean, expediente administratiboa zabaldu eustiela horregaitik.

**G: Nora joan zinen Kanpantxuko mutilen eskola itxi eta gero?**

**E:** Gernikara. Eta euskera irakaskuntzan sartzeko ahaleginari eutsi neutson bertan ere. Nire prestakuntza gaztelez eta frantsezez bazen ere, euskeraz emon nebazan klaseak, beste lankide batzuek batera. Hasieran, euskeraz irakasteko testulibururik ere ez geunkan, eta geure artean moldatu behar izan ginen metodo bat asmatzeko, katalaneraz egoan testuren bat iturritzat hartuta.

**G: Noiz itzi zenduan irakaskuntza?**

**E:** Orain dala bost urte. 1998-99 ikasturtea izan zan azkena niretzat. Amaitu zanean, aurre erretiroa onartu neban.

# AJANGIZTARRENTZAT ZABALIK



## Eztilotza eta Laubide-ren Arteko Landa Bidean Atontze Lanak

Mendata aldeko Eztilotzatik Laubide-ra doan landa bideko atontze lanak amaitu dira eta bidea behar bezala asfaltatuta dago barriro ere. Lanak egin aurretik, egoera txarrean egon da bide hau, arrakalduta eta hainbat zulorekin.

### Atontze osoa

Txarto egon diran bide zatiak konpondu dabez lan honeekaz. Errepedearen luz azpia harrobiko hondarraz eginda egon da, zabaldua eta geruzatan zapaldua; orain "dana-bat" deritzon materiala erabili dabe lehen-goaren ordeaz. 20 zentimetroko geruzak zabaldu eta lautu dabez bidearen hertze bietara jauzia emonda. Guzti honen gainean arido ofitiko egindako asfaltatzeko aglomeratua zabaldu da, 6 zentimetroko lodieraz.

### Zirkulazio ertaina

Bide honek zirkulazio ertaina dauka. Inguruko baso lanetan dabilzenak erabiltzen dabe eta Muxika eta Mendataren arteko kotxe partikularrak ere igarotzen dira bertatik. Baina, batez ere, oinezkoak ibiltzen dira landa bidetik, hainbat lagunentzat eguneroko paseolekua da eta.

Lan honek egiteko 80.000 € erabili izan dira.

Ajangizeko udalak herritarrentzat antolatutako hitzaldi, ikastaro, erakusketa eta gainerako ekitaldi publikoak bultzatu nahi ditu herrian. Horretarako udaletxeko ateak zabalik dagoz, ajangiztarren iradokizunak jaso eta herritarren jakingura asetzeko diren ekitaldiak antolatu ahal izateko.

## Ura, energia, garraioa eta hondakinak

Aurreko igandean, azaroak 14, Elizaldeko plazan antolatu zan "Ura, energia, garraioa eta hondakinak" erakusketa, Urdaibai-Busturialdea eskualdea osatzen duten udalek antolatuta.

## Yoga ikastaroa

Aurreko azaroaren 2an herritarrei zuzendutako yoga ikastaroa hasi zan. Asteaz bi aldiz emoten dira klaseak, martitzen eta eguenetan, arratsaldeko seiretatik zortzi t'erdietara, Ajangizko Etxebizitzetako lokaletan.

Laugarren urtez egiten den ikastaro honetara 11 lagun, danak emakumeak, apuntatu dira. Ikastaroa datoren urteko ekainean amaituko da.

## Inausketa eta txertaketari buruzko jardunaldia

Inausketa eta txertatze lanak garrantzi handikoak dira uzta ona jaso nahi ba da. Lan honek ondo egiteko erabili behar diren teknikei buruzko hitzaldia antolatu genduan aurreko martxoan. Esandakoa interesgarria izan zan bertara bildutako auzotarren arabera.

## Nekazal produktuen kontserba

Uztaila hasieran, 2an eta 3an hain zuzen ere, ikastaro praktikoa antolatu genduan nekazal produktuak zelan ontziratu eta gorde ikasteko. Klase praktikoa izan ziren eta ikastarora etorri zirenek aukera izan eben kontserba ontziraketak egiteko. Ikastaroa Kanpantxuko Txokoko eskatzean egin zan.



### Tefono erabilgarriak:

AJANGIZKO Udala: 946 251 913  
(ordutegia 8:00-15:00)

SOS DEIAK: 112

Mediku larrialdiak: 946 035 800

Suhiltzaileak: 946 250 917

**bbk =**

**MAIER**  
TRANSFORMACION DE PLASTICOS